



Ibermática arduratuko da Kutxabanken aplikazioen mantentze-lanez

- Aplikazioen diseinua eta garapena ere barne hartzen dituen zerbitzua berritu egin da eta jarduteko eremu berriak gehitu ditu.

Donostian, 2022ko otsailaren 16a. Aplikazioak diseinatzeko, garatzeko eta mantentzeko zerbitzuen zati bat berritu egin dute Kutxabankek eta Ibermáticak. Bi konpainiek aspaldidanik dute arrakastazko harremana euskal erakundearentzat estrategikoak diren zerbitzu horiek gauzatzen. Orain, zerbitzu horiek berritu egin dira prestazioan bilakaera batekin, balio-eremu berriak txertatu eta malgutasun-ereduan oinarritutako kudeaketa egingo duelarik.

Ibermáticak 2013tik eskaintzen dio aplikazioen mantentze-zerbitzua Kutxabank Taldeari, eta erakundeari bere bilakaera teknologikoan laguntzen dio, proiektu teknologikoak garatuz eta ezarriz.

Aliantza hori balio erantsi handikoa da bi konpainientzat, banku-negoziaren eraldaketa digitalagatik, sektoreko lehiakortasun handiagatik eta erregulazio-eskakizunengatik.

Kutxabanki bere estrategia digitalean laguntzeko, Ibermáticaren zerbitzu berriak plataforma teknologiko aurreratuagoen eguneratzea sartuko du, eta horrek analitika aurreratuan eta adimen artifizialean gaitasun eta erabilera berriak hedatzen lagunduko du, analitika prediktiboan modelaketa- eta garapen-metodologietarantz eboluzionatuz.

Kutxabanki bere bilakaera teknologikoan hainbeste urtetan lagundu izanaren garrantzia azpimarratu du Celestino Suarezek, Ibermáticako Finantza eta Aseguru Zerbitzuen sektoreko zuzendariak. “Denbora asko daramagu finantza-erakundeari zerbitzua ematen, ezagutzen ditugu haren premia edo beharrak, ezagutzen dugu sektorea eta ezagutzen ditugu bere helburuak betetzen gehien lagun diezaioketen joera teknologikoak, azkenean gureak ere badira-eta helburu horiek”.

“Kutxabankek aurrera egiten jarraitzen du bezeroei zerbitzurik onena eskaintzeko helburuan, eta, horretarako, gaitasun teknologiko berriek aukera handiak ematen dizkigute bezeroen premia edo beharretara hobeto egokitutako zerbitzuak emateko. Honelako aliantzek, orain Ibermáticarekin berritu dena bezalakoek, espezializazio handia duen eta etengabeko bilakaeran dagoen ingurune teknologikoan lan egitea ahalbidetzen digute, ingurune hori beharrezkoa baita hobekuntza-helburuei euskarria emateko”, nabarmendu du Koldo Etxeberriak, Kutxabankeko Sistema eta Prozesuetako zuzendariak.

CMMI ereduan 5. Maila

Nabarmentzekoa da Ibermaticak, zerbitzu berrituetan bere zerbitzuen kalitatea bermatzeko, Software Engineering Instituteko (SEI) 5. mailako CMMI eredu ziurtatuaren bidez ematen dituela zerbitzu horiek. CMMI (Capability Maturity Model Integration) ereduan 5. maila Kutxabankerako Aplikazioen Garapen eta Mantentze Zerbitzuetan erakunde batek lor dezakeen heldutasun-mailarik handiena da, eta, CMMI Institutek argitaratutako datuen arabera, gaur egun sektore teknologikoko dozena bat konpainiak baino ez dute hori Espainian.

CMMI ereduan 5. mailarekin eskaintzen diren zerbitzuak hiru alderdirengatik nabarmentzen dira batez ere. Lehenik eta behin, etengabe hobetzeko duen grinagatik: erakunde ebaluatzaileek ziurtatu dute Ibermaticak, jarrera inkonformistarekin, etengabe aztertzen dituela gauzak egiteko beste modu batzuk, lehiakortasuna areagotzeko. Bigarrenik, estatistika-teknikak erabiltzeagatik: bere lana nola egiten duen jakiteko eta zerbitzuak ematerakoan konpromisoak ez betetzeko balizko arriskuak goiz detektatu ahal izateko.

Eta hirugarrenik, eredu prediktiboen erabileragatik: erabakiak datuetan oinarrituta hartzeko aukera ematen dute horiek, prozesu kritikoetan (pertsonek, tresnak, eskakizunen aldakortasuna,...) eragina duten faktoreetan aurreikusitako edo aurreikusi gabeko aldaketa batek eragin dezakeen ondorioa ezagututa, termino matematikoetan. Errendimendu handiko bere zerbitzuetan, Ibermaticak "what-if" analisia egiten du jasotzen duen zerbitzu-eskaera bakoitzean, eskatutako epe, ahalegin eta kalitatez lanak osatzeko beharrezkoa dena doitzuz.